

**GERRA HOTZA ESPAINIAKO *ABC***  
**EGUNKARIAREN IKUSPUNTUTIK**  
**BOST GERTAKARIREN INGURUKO GOGOETA**  
**HISTORIAKO GRADUA**  
**2021/2022 IKASTURTEA**  
**AMAIA VERAMENDI OLASAGASTI**

**GRADU AMAIERAKO LANA**  
**TUTOREA: GUILLERMO MARIN CASADO**  
**HISTORIA GARAIIKIDEN DEPARTAMENTUA**  
**VITORIA-GASTEIZ**

**2022**

# AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
1.1. Metodologia	2
1.2. Helburuak	3
2. GERRA HOTZA	3
2.1. Madrilgo Akordioa	4
2.2. Berlingo Krisia	5
2.3. Kubako Misilen krisia	8
2.4. Espazioko lasterketa	9
2.5. Sobietarren krisia eta amaiera	11
3. ESPAINIAR PRENTSA	13
4. ABC MADRIL	14
4.1. Madrilgo Akordioa: “Bando”-aren ezarkuntza	15
4.2. Berlingo Krisia: sinbolikotasuna eta diplomazia	17
4.3. Kubako Misilen Krisia: Kennedy-ren garaipena	19
4.4. Espazioko lasterketa: panikoa vs konfiantza	21
4.5. Sobietarren krisia eta amaiera: Kremlin berria	23
5. ONDORIOAK	25
5. BIBLIOGRAFIA	28

# **GERRA HOTZA ESPAINIAKO *ABC***

## **EGUNKARIAREN IKUSPUNTUTIK**

### **ABSTRACT**

Idazlan honen helburua Gerra Hotzaren eta honekiko espainiar prentsak duen ikuspuntuaren arteko konparaketa bat egitea da. Horretarako, lana hiru zatietan dago banatua, alde batetik, Gerra Hotzeko gertakari zehatz batzuen analisi historikoa, bestetik, prentsaren beraren garrantzia eta Gerra Hotzaren testuinguruko espainiako ibilbide historikoa eta, azkenik, lehen zatian hautatutako gertakarien eta prentsaren narrazioaren arteko alderaketa.

*Hitz gakoak: Gerra Hotza, ABC Madrid, espainiar prentsa, Kuba, Berlin, Espazioa*

The intention of this paper is to make a comparison between the events of the Cold War and its perspective on the Spanish press. For this purpose, the paper is divided into three sections, on the one hand, an historical analysis of the Cold War, on the other hand, the importance of the press and the historical trajectory of the Spanish press within the Cold War period and, finally, the comparison between the events chosen in the first section and the narration that the press makes of them.

*Key-Words: Cold War, ABC Madrid, spanish press, Kuba, Berlin, Space*

### **1. SARRERA**

#### **1.1. Metodologia**

Lana garatzeko bibliografia historikoa eta prentsa izan dira bialiabide. Alde batetik, bibliografia historikoa bi zatitan banatu daiteke; lehenik, Gerra Hotzaz orokortasunean jorratzen diren lau liburu, horien artean berriena Westad-ena delarik eta, bigarrenik, gertakari zehatzetan sakontzen duten artikulu eta liburu ezberdinak. Bibliografia orokorrenari dagokionez, garrantzitsua suertatzen da Gerra Hotzeko gertakari oro testuinguruan kokatzeko eta parametro orokorrean Gerra Hotzaren beraren oinarri orokor bat edukitzeko. Artikulu edo liburu zehatzak, berriz, gertakari baten inguruan sakontasuna lortzeko ezinbestekoak dira, hauen bitartez lortzen baita zehaztasun osoarekin gertatu zenaren berri izatea, gerora hura prentsarekin alderatu ahal izateko.

Bestetik, iturri zuzena, prentsa, zehaztea ere garrantzitsua da, zeina eranskinaren arloan baitagoen aipatua. *ABC* egunkariaren hautua ez da ausazkoa izan, *ABC* ehun urte baina gehiago dituen egunkaria delako eta, bide batez, web guneko hemerrotekako sailean eskuratzea erraza delako. Bestetik, *ABC* eguneroko egunkari bat denez, errazagoa da gertakarien inguruko sakontasun bat lortzea, garaiko gora-beherak eta ezinegonak argiago islatzen dituelako. Eranskinetako sailean, prentsaren aipuak bi arlotan daude banatuta, alde batetik, lanean zehar kakots artean aipatutako artikulak eta, bestetik, teoria edo jarrera zehatz bat definitzeko ezinbestekoak diren bestelako artikulak. Azken finean, prentsaren inguruko jarrera zehatz bat definitzeko ezinbestekoa da prentsa osotasunean aztertzea, gerora aipu zuzenak egiten badira ere.

## 1.2. Helburuak

Lanaren helburua Gerra Hotzaren bibliografiaren eta *ABC* egunkariaren narrazioen arteko alderaketa bat egitea da. Egunkaria, garaiko iturri zuzena izanik, eguneroko batean Gerra Hotzak zuen eragina isladatzen duelako da garrantzitsua. Egunkariak transmititzen dituen sententzioak, nahiak edota berriak oinarri bibliografikoarekin konparatzea ezinbestekoa da garaiko gizarteak eduki zezakeen informazioa edota ideologia ulertzeko. Beraz, lanaren helburua bi oinarri nagusitan bana daiteke, batetik, Gerra Hotzarekiko espainiar prentsak hartu zuen jarrera eta joera aztertzea eta, bestetik, parametro orokorragoetan, frankismo garaiko eta trantsizio aldiko prentsaren arteko alderaketa bat egitea.

## **2. GERRA HOTZA**

Mundu mailan XX. mendearen bigarren erdialdean eragin handiko gertakaria izan zen Gerra Hotza. Etsaitasun garai nagusia 1945 eta 1989 urteen bitartean eman zelarik, bi ideologiaren kontraposizio baten baitako gatazka diplomatikoa izan zen, komunismoaren eta kapitalismoaren arteko talka, alegia (Westad, 2018, 1.or.). Garai hartako potentzia nagusiek, Sobietar Batasunak eta Estatu Batuek, mundu mailako eragina lortze aldera burututako borroka moduan uler daitezke (Powaski, 2000, 9.or.). Gerra Hotzak ez zituen mundu mailako gertakari oro eragin, baina bai baldintzatzen zituen eta, batez ere, superpotentzien presentzia indartu zuen. Epe honen baitan biltzen diren gertakariak egoera absolutuan uler daitezke, kasu batzuetan, sistema komunistaren birproduktioan, adibidez, Kuban; edo kapitalismoaren ezarkuntzan, Hego Korean kasu (Westad, 2018, 2.or.). Asiako eta Afrikako lurraldeek Gerra Hotzean garrantzia izan

bazuten ere, lan hau Europako eta Ameriketako gertakari garrantzitsuenetan zentratuko da: Berlingo Krisian, Kubako misilen krisian, Espazioko lasterketan eta harresiaren erorreran hurrenez hurren. Bestetik, Marshall Plana eta geroko Madrilgo akordioak ezinbestekoak liratezke Espainia mundu mailako dinamika honen baitan kokatzeko eta, bertako prentsa aztergai denez, penintsulak bi potentzietan eduki zituen harremanak ere aipagarriak dira.

## 2.1. Madrilgo Akordioa

II. Mundu Gerran zehar historian inoiz bildu den suntsipen handienetako bat pairatu zuen Europak, honenbestez, ekonomia ere ahuldu egin zen. Lehenengo Mundu Gerrako erabakiek eragindako 1929ko Kraxa kontuan hartuta, 1945ean bestelako norabide bat hartu behar zela argi zegoen. Hala, Washingtonen, bigarren krisi bat sahieste aldera eta, bide batez, Europan zeukan eragina handitzeko, Mashsall Plana plazaratu zen. Plan honen helburua Europa, bertako ekonomia berreskuratzeko, Estatu Batuen diru-laguntzaz hornitzea zen. Plana berretsita, Europa Mendebaldeko estatu gehienek, Espainiak eta Sobietar Batasunak salbu, diru-laguntzez gozatu zuten hurrengo lau urteetan (Magid, 2012, 1-3.or.). Sobietar Batasuneko errepublikek (Polonia eta Txekoslovakia barne), Stalinen aurkaritzaren aurrean, diru-laguntzak jasotzeari uko egin zioten (Dacio, 1957, 88.or.). Azken finean, politika, itsuraz, ekonomiko honek bere baitan ere kutsu ideologikoa zuen, laguntza-ekonomikoarekin batera *American Way of Life*-a<sup>1</sup> zabaldu baitzen (Delgado, 2003, 48.or.).

Espainiari dagokionez, II.Mundu Gerraren ostean, mendebaldarren begietatik Europa berrituan mantentzen zen diktadura faxista moduan zegoen ikusia. 1944ean Francok, Churchill-ekin eduki zuen bilera batean, sobietarren aurkako liskar baten aurrean laguntzeko prest zegoela baieztatu zuen; honek Espainia etorkizuneko bake akordiotatik eta baita NBE-tik ere kanpo uztea eragin zuen (Powell, 2003, 81.or.). Ondorioz, Potsdameko Akordioetatik eta San Franciskoko konferentziatik at gelditu zen eta, gizarte demokratiko berrien eraketan, Espainia nazioarteko politiketatik isolatu zen 1946ko “Espainiar auzia”-ren bitartez (Martinez, 1996, 155-156.orr.). Dena den, Potsdameko akordioek erakutsi zutenaren arabera, SESBek proposatu zuen Franco haren postutik kentzeko ideia ezeztatu egin zuten mendebaldeko potentziek, izan ere,

---

<sup>1</sup> Modernitatearekin, kontsumo-gizartearekin, demokraziarekin eta garapen teknologikoarekin erlazionatzen den gizarte eredu amerikarra.

diktadura desagertzekotan Espainian sobietarren aldeko politikak ezartzearen beldur baitziren. Sobietar Batasunak Marshall Planari ezezkoa ematean, Espainiak, Estatu Batuetan zentratuz, nazioarteko harremanak hobetzeko lehenengo proiektuak hasi zituen. Lehenengo saiakerak muga aunitz erakutsi bazituzten ere, 1950. hamarkadaz geroztik, Washington-Mosku harremanak okertzen ari zirelarik, AEBk Espainiarekiko zuen interesa handitu egin zen. Honen harira, 1950an Nazio Batuen Erakundeak, etorkizunerako aliatu bat izan zitekeela pentsatuz, penintsulari zigor diplomatikoak kendu zizkion. Azkenean, Estatu Batuetan ematen ari zen ikarak, hein handi batean Koreako Gerraren ondorioz emandakoak, peninsularen mesedera eragin zuen, 1953ko Madrilgo Akordioen ostean emango baitzen lotura diplomatikoen egonkortzea, Espainiara zuzendutako 60M inguruko diru-laguntzekin batera (Delgado, 2003, 55-58.orr.).

## 2.2. Berlingo Krisia

Bi blokeen arteko egoera okertzen zihoala, Stalinek, potentzia babesteko ezinbestekoa zen pentsamenduarekin, 1949an bonba atomikoa garatzea lortu zuen. Honen aurrean, mendebaldarrek NATO sortzea erabaki zuten, erakunde honen helburua, SESBen aurrean Europar lurraldeen defentsa zen (Powaski, 2000, 101.or.). Alemaniari dagokionez, Sobietar Batasuna at gelditu zen 1948ko Londreseko Batzarraren ostean, lurraldea banatzearen auzia geroz eta egiazkoagoa ari zen bilakatzen (Westad, 2018, 118.or.). Azkenean, Alemania lau handien artean zatitu zen, hots, Frantziaren, Ingalaterraren, AEBren eta SESBen artean, lehenengo hiruek elkartasun bat eratu zutelarik. Beraz, Alemania eta haren hiriburua, Berlin, AEDren (Alemaniako Errepublika Demokratikoa, sobietarren eraginpean) eta AEFren (Alemaniako Errepublika Federala, mendebaldarren eskuartzearekin) artean gelditu zen banatua. Alemaniaren egoera oso ezegonkorra bilakatu zen, hau batez ere Berlingen isladatzen zelarik. Izan ere, bi blokeen arteko tira-biren baitan, 1948 eta 1949 bitartean, Sobietar Batasunak Berlin blokeatzeko lehenengo saiakerak burutu zituen, honen ondorioz Gerra Hotzaren testuingurua guztiz definitu zen (Veiga, Da Cal y Duarte, 1998, 73-76.orr.). Txinako eta Koreako gatazken baitan, bi blokeen arteko ezinegona handitu egin zen, tentsioak ere hala eginaz. Gainera, NATO geroz eta indar handiagoa hasi zen biltzen, eta 1955ean AEF NATOren izenean militarizatu egin zen (Westad, 2018, 253.or.).

Gatazken ugaritze honek eragin zuen 1958ko Berlingo krisia. III.Reicha disolbatuta, sobietarrak eta estatubatuarrak, banaketan egokitu zitzaizkien lurraldeetan, bakoitzak defendatzen zuen sistemarekiko alemanen babesa lortu nahi zuten. Berlin, Kersaw-en (2018) hitzetan, “sobietarrek kontrolatzen zuten ozeano batean mendebaldarren esku zegoen irla txiki bat zen” (40.or.) zen. Potsdameko akordioen arabera, Alemaniaren banaketa adostutako akordioa, alegia, Mendebaldarrek Berlin ekialdean sartzeko eskubidea zuten, eta ekialdarrek ere hala egin zezaketen. Berlingo krisia 1958 eta 1963 bitartean eman bazen ere, krisiaren punturik latzena 1961ean eman zen, harresia gauzatzen hasi zenean, hain zuzen ere.

Krisia ulertzeko, ezinbestekoa da aurrekari zuzenak ulertzea. 1950erako Adenauerren (Alemania Mendebaldeko gobernaria) presidentzian AEFko ekonomia asko hobetu zen, honek gizartean ere sakonki eragin zuelarik (Westad, 2018, 258.or.). 1953an, Eisenhower Washingtonen finkatu zenean, Europa mendebaldearen eta ekialdearen arteko haustura argi ikus zitekeen, izan ere, ekialdekoen boterea estatu sateliteen bitartez biltzen zuen bitartean, mendebaldekoena NATO-ren bitartez indartu zen. 1953an hasi ziren Alemania ekialdean lehenengo gatazkak sobietarrek proposatzen zituzten lanaren erreformaren harira, Estatu Batuek auzi honetan militariku esku-hartu ez bazuten ere, propagandarako sekulako bultzada izan zen (Coleman, 1995, 3-7.orr.). Bizimodu estatubatuarraren eredia indartu zuen propaganda honek Europan (Westad, 2018, 262.or.). Bi blokeen arteko tentsio armatua gora zihan heinean SESBek, NATOren nagusitasunaz jabetuta, 1955ean Varsoviako Akordioa eratu zuen, hots, NATOren alternatiba ekialdarra. Bestetik, Stalinen 1953ko heriotzaren ostean, Khrustxov iritsi zen Moskuko gobernura (*Ibid*, 232.or.).

Sobietar buruzagiaren aldaketaren aurrean, 1955eko Ginebrako Gailurrean Eisenhowerrek “lau handiei” Alemaniako tutoretzapeko batasuna aurrera eramatea eskatu zien, baina eskari hau Moskuk ezeztatu egin zuten, izan ere, Alemania Mendebaldea milizaturik egotea haietzako mehatxutzat baitzuten. Dena den, bilera honek bi blokeen arteko tentsioak arintzeko balio izan zuen, hala, 1958ko azaroaren 10ean Khrustxovek “Berlingo auzia” konpontzeko eskaera luzatu zuen, AEFren desmilitarizazioa eskatuz eta Errepublika Federalaren esku utziz Errepublika Demokratikoarekin harremantzea. Bien bitartean, Ulbrichtekin (Berlin ekialdeko presidentearekin) eduki zuen bilera, honetan Alemaniako ekialdetik mendebalderako

langile kontentgaitzen emigrazioaren inguruan aritu ziren, Ulbritchen iritziz honen errua Berlingo muga irekiak zuen (Smyser, 1999, 137-138.orr.). Bi blokeak, beraz, 1950 baina lehenagoko adostasunak ez betetzearen ondoriozko eztabaida batean ari ziren amildegiratzen (Coleman, 1995, 34.or.).

1958ko Khrustxoven Alemaniaren inguruko eskaerak bi puntu nagusi zituen: lehenik, bi zatiak unitate politiko independente batez egon behar ziren osatuak eta, bigarrenik, lurraldearen desmilitarizazioa. Proposamen hau betetzeko 6 hilabeteko tartea eman zitzaizen estatubatuarrei, erantzunik egon ezean, Khrustxovek ez zuen gaiaren inguruan berriro eztabaidatuko. Gutunaren aurrean, estatu bakoitzeko gobernarien erantzuna ezberdina izan zen, Eisenhowerrek, adibidez, *ultimatum*-ari muzinik ez egitea erabaki zuen. Beste alde batetik, Macmillan (Britainia Handiko gobernaria) izan zen arduratuena, Khrustxovekin bilera bat hitzartu baitzuen. Azkenean, mendebaldarrek gutunaren inguruan eztabaidatzeko bilera bat burutu zuten Adenauerrekin batera, honen harira eman zen NATOren eskutik erantzuna: mendebaldea desokupatzen bazen, ekialdeak ere hala egin behar zuen. Bestetik, 1959an Ginebrako beste Gailur bat hitzartu zuten eta Khrustxoveri parte hartzeko eskaria luzatu zioten, dena den, hara soilik sobietarren ordezkari bat bertaratu zen eta ez zen adostasunik lortu (Smyser, 1999, 142-144.orr.). 1959ko irailean Eisenhowerrek Khrustxov Estatu Batuetara gobidatu zuen, baina, beste behin, ez zen akordiorik lortu. Azkenean, 1959ko maiatza ez zen berreste-datarik izan, bi blokeen arteko negoziazioetarako bidea ireki baitzuen. Potentziek 1960eko maiatzerako hartu zuten Parisen hitzordua auzi guztiak eztabaidatzeko, dena den, bilera hau sobietarren lurraldean U-2 aeroplano espia estatubatuar bat etetearen eta eraistearen ondorioz ez zen eman (Coleman, 1995, 39.or.).

1961ean, krisi honen ostean, Kennedyk eskuratu zuen Estatu Batuetako gobernua. Etxe Zuriko bizilagun berriaren aburuz, bi blokeek negoziazioa lortu behar zuten, baina ez zegoen Berlingo posizioa eraldatzeko pest. Egoera berdina zen, Berlin mendebaldea NATOrekin zegoen lotua, ekialdea Varsoviako Akordioari loturik zegoen bitartean. Kennedy, Coleman-en (1995) aburuz, “arduratuagoa zegoen tropen erretiroak Amerikar presigioan suposa zezakeen ondorio diplomatikoez, Europako benetako interesak identifikatzeaz baino” (42.or.), beraz, ez zegoen Berlin Mendebaldea desarmatzearekin ados. Estatubatuarren ikuspuntutik, Berlin estuki loturik zegoen NATOrekin eta, beraz, Berlin erasotzeak mendebalde osoa erasotzea suposatuko luke. Kennedyk Khrustxov



deitu zuen bilera pribatu bat eduki zezaten, hala bildu ziren biak Vienako Biltzarrean. Bilera honek adostasun gutxi lortu bazituen ere, bi blokeen arteko etsaitasuna lasaitu eta politikak bakegileagoak bilakatu ziren. Bestetik, bilera honetan hasiko ziren Berlingo harresiaren gaineko lehenengo aipuak eta gutxira oihartzuna egingo zuen Alemanian. Ulbritchen iritziz, Berlinen inguruko erabakia hartzea ezinbestekoa zen, Berlinen ematen zen emigrazioak sobietarren berezko izaera lausotzen baitzuen. Hau da, langileak, Colemanen (1995) hitzetan “Langileen paradisuak” (49.or.) gune kapitalistara igarotzen hasi zen. Honen aurrean, 1961eko abuztuaren 13an, AEDko tropak Berlineko mugan zehar zabaldu ziren eta, dokumenturik erakutsi ezean, bi aldeek arteko pasabidea eten zuten. NATOk gertakaria ez zuen mehatxu moduan ikusi, beraz, ez zuten ezer egin etete hau galarazteko. Abuztuaren 17rako harresia materializatzen hasi zen, baina oraindik ere jendea mugen artean pasa zitekeen. Estatu Batuarrek harresia geldiarazteko eskaera luzatu zieten sobietarrei, baina oraindik ez zioten garrantzia handiegirik ematen, are gehiago, estatubatuarrek, Colemanen (1995) hitzetan, harresia “haien (sobietarren) politiken porrotaren sinbolo” (60.or.) zela esaten zuten. Beranduago, Kennedyk 1500 gizon lekualdatu zituen mugara AEFren defentsa aldarrikatuz, baina abuztuaren 20ra arte ez zuen harresiaren inguruko arriskurik ikusten (Coleman, 1995). Esan beharra dago, mundu mailan ezagunena den gertakaria urte bereko urriaren 26ean eman zela, orduan, Clay, estatubatuarren ordezkaria, dokumenturik erakutsi gabe muga pasatzen saiatu zen, Ulbritchen ezezkoaren aurrean, kotxe eskolta batekin eta bost tankerekin urbildu zen mugara. Sobietarrek ere AED-ko mugan neurri berdinak hartu zituzten. Azkenean, bi bloke nagusietako gobernariak tankeak urriaren 28ko goizean kentzea erabaki zuten, sobietarrek goizeko 10:30etan burutuko zuten erretiroa eta estatubatuarrek ordu erdi beranduago (Correl, 2011, 96-100.orr.). Gerora, Berlinen inguruko eztabaidak berriro ere bide diplomatikora eramane ziren.

### 2.3. Kubako Misilen krisia

Testuingurua zehazte aldera, 1961 urtea ez zen urte erraza izan Washingtonentzako, alde batetik, estatubatuarrek Gerra Hotzaren borroka teknologikoa galtzen ari ziren izua zabaldu zen apirilean, Yuri Gagarin lurreko orbitatik ateratzen lehenengo kosmonauta izan zenean. Bestetik, Vienako Bileraren porrota eta Berlinen inguruko borroka, European, eta CIAk Cochinos Badian pairatu zuen porrotak, Amerikan, estatubatuarren ikuspuntua okertu besterik ez zuten egin. Hau guztia bi blokeek politiketan indartu

zuten espiontza testuinguruan kokatu behar da, Berlingo Krisiaren osteko egoera okertu besterik egin ez baitzuen (Absher, 2009, 5.or.).

Kubako Iraultzaren eta ambiguitasun garai baten ostean, Castrok gobernatzen zuen irla Alderdi Komunistaren kontrolpean zegoen 1962an. Urte bereko maiatzerako, Khrustxov misilak irlara eramateko lehenengo prestakuntzak hasi zen burutzen. 1962ko gertakari hau, Abser-en (2009) arabera, “Gerra Hotzeko krisi arriskutsuena” (1.or.) kontsidera daiteke. Sobietarrek misilak irail eta urri bitartean jartzea adostu zuten eta, urte bereko azaroan, Dobrynin embaxadore sobietarrak misilen berri ematego zion Washingtoneri. Fidel Castrok planari baiezkoa eman ostean, sobietarrek misilak Kuba babesteko ziren ideia indartu zuten, irlan 40 bat misil ezarri zirelarik. Beste behin, espiontza sekulako bultzada izan zen, Washingtonek azaroa baina lehenago izan baitzuen misil hauen berri. Irailaren 13an Kennedyk Kubako jarduerak geldiarazteko oharpen bat plazaratu zuen baina sobietarrek ez zioten kasurik egin. Urriaren 16erako Kennedyk espioi berezien berriak jaso zituen, hauek irlan eskala handiko misilak jartzen ari zirela zioten, honen aurrean, EXCOM-aren (Executive Committee of National Security Council) bilera eskatu zuen. Bilera honen ondorioz, urriaren 20ean, Kennedyk Kubaren gaineko itsas blokeoa ezartzeko behin behineko erabakia hartu zuen, bi egun beranduago prentsaurreko batean konfirmatu zuelarik. Sobieten erantzuna 4 egunen buruan eman zen, Khrustxovek irratsaio batean Turkiako misilak kentzeko eskatu zien estatubatuarrei. Hurrengo eguna izan zen, Absherren (2009) hitzetan, “krisiaren egun ilunena” (72.or.), Kennedyk zazpi egunen buruan irla bonbardeatzeko ideia eztabaidatu baitzuen. Beranduago, Estatu Batuetako buruaren eta Dobrynin-en arteko bilera batean, lehenengoak Kubatik misilak kendu ezean operazio militar bat emango zela ohartarazi zion bigarrenari, bestalde, Turkiako misilak denbora-tarte batez kentzeko ere prestutasuna erakutsi zuen. Azkenean, urriaren 28an Khrustxovek publikoki baieztatu zuen Kubako misilen eraistea estatubatuarrek irla indarrez ez hartzearen truk, bien bitartean, Kennedyk -ezkutuan-Turkiako misilak erretiratzea onatu zuen (Absher, 2009, 74-75.orr.).

#### 2.4. Espazioko lasterketa

Bigarren Mundu Gerrak tentsioak lasaitu beharrean, bi blokeen arteko babes beharra handitu zuen. Lasterketa armamentistikoa handitu egin zen, denborarekin, lur-aireko misilak gailendu ziren, misil balistikoa bilakatu zelarik 50.hamarkadako erregina, horien artean ICBM (Inter-Continental Ballistic Missiles) izan zen nagusiena (Veiga, Da Cal

eta Duarte, 1997, 140.or.). Bestalde, jada Eisenhowerren presidentzia garaitik, SESB ikuskatzeko satellite baten beharra proposamen erreala bilakatu zen. Proiektu hau atzeratzeko arrazoï nagusia sobietarrek honekiko eduki zezaketen erantzunaren ezagutza eza litzateke. Beraz, satelliteen erabilerarako nazioarteko legediari eman zion Washingtonek lehentasuna, hots, “*derecho internacional consuetudinario*”-a erabiltzeko erabakia hartu zuen, honen bitartez SESB satelliteen erabilera onartzera derrigortua egongo bailitzateke. Estatu Batuek espero zutenaren kontrara, SESBek 1955ean satelliteak jaurtitzeko asmoa argitara eraman zuen, beraz, estatubatuarrek berdina egiteko askatasuna zutela ikusirik, lau hilabeteren buruan xede berdina zutela baieztatu zuten (Lai, 2021, 7-8.orr.).

1957ko urriaren 4ean sobietarrek *Sputnik* satellitea egotzi zuten orbitara, haien nagusitasun teknologikoa erakutsiz. Amerikarrek Korean eta Berlinen haien gailentasuna erakutsi bazuten ere, Moskuk aurrea zuen ustea zabaldu zen gizartean (Norris, 2008, 1-3.orr.). Izua hedatu zen Eisenhower buruzagi zen lurraldean, baina gobernuak beste era batera ulertu zuen gertakaria, oraingoan, *Sputnik* askatasuna eman zien: Errusia ezin zen haien satellitearen jaurtiketaren aurka jarri (Lai, 2021, 17.or.). Sobietarrak, *Sputnik* mundu mailan eduki zuen ereginaz ohartuta, *Sputnik-IIa*, Laika txakurrarekin batera, eta *Sputnik-IIIa* orbitaratu zituzten. Norrisen (2008) arabera, “estatubatuarrek etengabeko porrotean zeuden eta sobietarrak beti loriatsu ateratzen ziren pertzepzioak paranoia publikoa indartu zuen” (5.or.). Nagusitasun sobietarra argi zegoen eta Yuri Gagarin, espaziora iritsi zen lehenengo pertsona, 1961ean orbitaz at ateratzean, iritzi publikoa asaldatu egin zen (Norris, 2008, 5-7.orr.). Aurrerapen handi honen aurrean, estatubatuarrek kale egiten ziharduten, *Vanguard* satelliteek ez zuten espero zena lortzen, eraitsi ziren 11 misiletatik soilik hiruk lortu zuten orbitara iristea. Denboraren kontua besterik ez zen Sobietarrek ICBM garatzea (Veiga, Da Cal eta Duarte, 1997, 141.or.). Estatubatuarrek erantzun behar zuten, izan ere, Norris-ek (2008) dioenaren arabera, “*Sputnik* sobietarrek oraingoan Amerika bonbardeatzeko gaitasuna zutela sinistarazi zioen jendearen gehiengoari, eta hau ez zuten begi onez ikusten” (11.or.). Iritzi publikoa ezinbestekoa zen Gerra Hotzaren esferan, beraz, biztanleriaren konfiantza berreskuratzea beharrezkoa zen. Honenbestez, 1961an ilargirako bidaiaren lehenengo proiektuak hasi ziren gauzatzen (Norris, 2008, 13-15.orr.). Bien bitartean, sobietarren gobernuko aldaketak ere eragin handia izan zuen, izan ere, Brezhnev ezarri zen estatu-buru, eta hura bi blokeen arteko bakearen mesedekoa zen (Zimmerman,

2005, 31.or.). 1969ko uztailaren 20ean burutu zen ilargira lehenengo bidaia Neil Armstrong estatubatuarraren eskutik. Bidaia honek munduari Estatu Batuen gaitasun teknologikoa erakutsi zion eta *Apollo II* ontziak iritzi-publiko estatubatarra lasaitu zuen (Norris, 2008, 14-17.orr.).

## 2.5. Sobietarren krisia eta amaiera

Aurrez aipaturiko moduan, 1964ean, Brezhnev SESBeko gobernura iritsi berri zegoenean, sobietar sistemaren gabeziak argira atera ziren. Ekonomia industrial degradaturik zegoen, hazkuntza estensiboak eta esplotazioak mundu mailako lehenengoak kokatzen bazituen ere. Bestetik, biztanleriaren bizi baldintzak okerreranzko joera nabaria erakutsi zuten eta, mugimendu nazionalistekin batera, potentziaren oreka eta etorkizuna kolokan jartzen hasi ziren (Martín, 1999, 5-8.orr.). 1981ean, Estatu Batuetan, Reaganek hartu zuen lekukoa, haren presidentziako lehenengo urteak oso bortitzak eta gudazaleak izan zirelarik (Veiga, Da Cal eta Duarte; 1997, 306-307.orr.). Washingtoneko buruzagi berriak Brezhneveri gutun bat bidali zion bien arteko bilera bat eskatuz, baina, gobernari sobietarra pairatzen ari zen zailtasun fisikoak zirela-eta, gutun honek ez zuen erantzunik jaso (Leffler, 2008, 438-439.orr.).

1982an hil zen Brezhnev eta, bi lehendakaritza laburren ostean, Gorbatxovek hartu zuen SESBeko ordezkari 1985eko martxoan (Martín, 8.or.). Bien bitartean, 1983az geroztik, Reaganek, SESBen ahultasunaz probestuz, hirugarren munduko lurraldeetan gerrak hasi zituen sistema komunista kaltetzeko (Leffler, 2008, 449.or.) Sobietar lurraldeetako krisia handitzen zihoan, 1986 eta 1991 bitartean sobietar lurraldeen arteko tentsioak handitu egin ziren, honek Moskuren gaineko gatazkak ere ugarituz. Gainera, ezinegon soziala nabaria zen, *nomenklatura*<sup>2</sup> estatuaren elite bilakaturik zegoen jada. Gorbatxov, momentuko gatazkak gutxitzeko, *Glasnost* aldaketa saiatu zen garatzen, honen bitartez, herriaren komunikazio bideak erraztu eta ekintza politikoak gardendu nahi zituen, prentsari ere askatasun gehiago emanez. Bestetik, Alderdi Komunistaren eragina gutxitzeko, sistema egokitu eta eraldatu egin zituen. Erreforma erreforma, gizartea jada nekatua zegoen, goiz frogatu baitzen saiakera hauek mugak besterik ez zituela. Azkenik, Gerra Hotzari dagokionez, Gorbatxovek helburu militarrei lotutako gastua gutxitu zuen, kanpo-politika bakezaleagoetarako bidea irekiz, hau begi onez ikusi

---

<sup>2</sup> Sobietar Batasuna gobernatzeaz arduratzen zirenak.

zen mendebaldean, baina sobietar lurraldeetan haserrea handitu besterik ez zuen egin (Martin, 1999, 10-21. orr.).

Gorbaxov eta Reagan lehenengoaren eskakizunaren harira elkartu ziren Ginebrako 1985eko Goi-Bileran. Honetan adostasun zehatzak lortu ez baziren ere, bi liderren arteko gerturatze bat eman zela nabaria zen (Leffler, 2008, 479-484.orr.). Geroago, gutun eta adostasunik gabeko bilera batzuen ostean, 1988an INF Ituna sinatzea lortu zen, honen bitartez, misil eta gurutzaontzi militarren igarobidea mugatu zen, gainera, 1987 eta 1988 bitartean, Reaganen presioa zela-medio, SESB-ek Hirugarren Munduko lurraldeak utziko zituela esan zuen (Powaski, 2000, 313-317.orr.). Gorbaxovek bazekien Washingtonekoak, gai armamentistikoei zegokionez, aurreratuagoak zeudela sobietarrak baino eta, beraz, aurpegi bakezaleago bat erakutsi behar zuela; hala, 1988an kontu militarretan inbertitzen zen dirua murriztu zuen (Leffler, 2008, 495.or.).

1989an Bush iritsi zen Etxe Zurira, Gerra Hotzaren amaiera jada hurbil zegoen, baina Bush-ek ez zituen eskaera sobietarrak bete nahi. Honek iritzi publikoa aldatu zuen, oraingoan Busheri leporatzen zitzaion gerraren ebazpena oztopatzea (Powaski, 2000, 324-325.orr.). Mendebaldarren eskutik jasotako kritika ugariaren ostean, Bush-ek Moskurenaganako gerturatze bat eramateko saiakerak egin zituen. Ordurako, ezinegon nazionalistek indarra bildu zuten, Hungaria eta Polonia honen froga zuzena zirelarik. Honen aurrean, Gorbaxovek bi lurralde hauen gatazkak arintzea erabaki zuen, honetarako, autonomia handiagoz bermatu zituen eta bi lurraldeetako Alderdi Komunistei haien gobernuko presentzia txikitzea eskatu zien (Leffler, 2008, 549-450.orr.).

Gertakari guztien artean eman zen Belingo Harresiaren erorrera famatua. Harresia erori aurretik, Ekialdeko Alemaniaren desadostasunak eta atsekabeak oihartzun handia zuen eta sistema komunistaren alternatibak bilatzeko eskakizunak ugaritu egin ziren. Halaber, Hungariaren mugen zabaltzeak AEDtik AEFranzko migrazioak ugaritu zituen, eta istiluak handitzen hasi ziren. Bien bitartean, Krenz jarri zen AEDko buru, Gorbaxovek gobernari berriari egoera zailaren aurrean tolerantzia aholkatu zion, ondorioz, Alemania ekialdean partidu ezberdinak sar zitezten ahalbidetu zuen. Testuinguru tirabiratsu honetan harresiaren etorkizuna eztabaidagai bilakatu zen. Alemania ekialdeko mendebaldearen sistema berdina edukitzeko eskaerak plazaratu zituen, Leipzig-eko

mugimenduek geroz eta pertsona gehiago biltzea lortuz. Azaroaren 9 eta 10a bitartean, harresia hiritarrentatik eraitsia izan zen (Ibid, 543-546.orr.). Gorbaxovek presidentziako une gogorrenak bizi zituen garai honetan, AEDren kontrola jada galdu zuten, gainera, bi Alemanien arteko pasabidea irekia zegoen, honenbestez, AEFrekin lehenengo negoziazioak hasi ziren ematen. Eztabaida ugariren ostean, bi presidentetek Alemanen esku utzi zuten haien batasunaren nolakotasunaren inguruko erabakia (Smyser, 1999, 366-385.orr.).

Sobietar Batasuna jada atzerabiderik gabeko krisi batean zegoen sarturik, eta 1991ean eman zen alferrikako estatu-kolpe baten ostean, Gorbaxov Moskura itzuli zen. Testuinguru honetan, Errepublika federalek borroka nazionala handitu zuten independentzia aldarrikatuz, hauek 1991eko abenduaren 8an onartu ziren Minsken itun baten bitartez. Itun honek independentzia ez ezik, SESBen desagertzea ere aitortzen zuen. Azkenean, 1991eko abenduaren 25ean utzi zuen Gorbaxovek gobernuaren ardura, orduko SESB guztiz desaginda zegoelarik (Martín, 1999, 24-26.orr.).

### **3. ESPAINIAR PRENTSA**

Gertakari oro garatu ostean, lanaren helburua espainiar prentsa oinarri hartuta gertakarien kritika eta alderatze bat egitea litzateke. Horretarako, lehenik prentsaren garrantzia aurkeztu, bigarrenik, Gerra Hotzaren denboraldia kontuan hartuta, espainiar prentsaren baitan egondako aldaketak eta azkenik, *ABC* Madrilen ibilbide historikoa adieraziko dira.

Gaur egun, hedabide ezberdinek balio informatibo eta komunikatibo handia dutela eztabaidaezina da. XX. mendeari dagokionean, telebistak eta irratiak berebiziko pisua eduki bazuten ere, prentsaren urrezko aldi moduan kontsidera daiteke, hura izan baitzen propaganda eta informazioa jendarteratzeko tresna nagusia (Chulia, 2001, 13.or.). Prentsa balio handia du gizartean, hainbesteko da haren pisua non gizartearen beraren ispilu kontsidera litekeen. Hau hobekiago ulertzeko, Garcesen (2015) gogoeta oso interesgarria suertatzen da, *“el periódico es, pues, captación del ritmo móvil y elocuente del pensamiento social. En las sociedades organizadas su pensar influye en el pensar que el periódico retrata”* (173.or.). Bestetik, garrantzitsua da ere azpimarratzea komunikabideek haiek plazaratzen duten informazioa hautatzeko boterea dutela, egokitzen dutenean sakonduz eta interesatzen ez zaiena, berriz, baztertuz. Ulertu behar

da, halaber, bai propaganda eta baita berriak eraketa ideologiko baten islada direla eta, honen aurrean, diktadurapean bizi diren biztanleek haien hedabideen errealitatea ulertzeko joera nabariagoa duten bitartean, gizarte demokratikoetakoetan propagandak, ustez neutrala denak, izatez menderatzaileen ideologia birproduzitzen duela. Ondorioz, prentsa nagusien mesedera jokatzeko duen berrien baitan kamuflatuta gelditzen da (Parry-Giles, 1996, 147-1949.orr.).

Frankoren diktadura 1939an zabaldu zen Espainian, eta hala egin zuen ere informazioaren eta kulturaren tutoretzak eta aldarri askatasunaren mugaketak. 36 urtez iraun zuen diktaduran zehar, erregimenaren errepesioa, aldi ezberdinak izan bazituen ere, denboraldi osoan mantendu zen. Prentsaren zentsura 1938an eta 1966ean dekretaturiko bi artikuluren bitartez ahalbidetu zen eta, lege hauen ondorioz, egunkari ezberdinen (*ABC, La Vanguardia, El Ideal...*) buruzagitzan diktadurarekiko fidelak ziren pertsonak ezarri ziren. Bestetik, Serrano Legearen bitartez, gobernuak egunkari eta informazio ezberdinen argitalpenak baieztatzeko edo ezeztatze boterea zuen. 1966ean aldaketa garrantzitsu bat eman zen, Serrano Legea deuseztatu zen, baina prentsa oraindik gertutik behatua mantendu zen. 1975ean, diktadura amaitzean, prentsarekiko kontrola malgutu egin zen eta 1978an bozkatu zen konstituzioak hiritar prentsa eta aldarri askatasuna aldarrikatzen zituen (Aguilera, Álvarez, Bustamante et al, 1989, 232-241 eta 257.orr.).

Amaitzeko, *ABC* Madrilen ibilbide historikoa aipatzea ezinbestekoa da. Egunkaria 1903an sortu zuen Torcuato Luca de Tenak eta 1905ean bilakatuko zen eguneroko egunkaria. XX. mendean zehar *ABC*k Espainiar estatuan egon ziren gora-behera ideologiko eta politiko orori eutsi zion, garaiko egunkari nagusienetako bat bilakatu. Frankismo garaian *ABC* erregimenarekiko fidel mantendu zen eta trantsizio garaiko testuingurura ere egokitzen ikasi zuen. Esan liteke, XX. mende osoan zehar, haren ideologiaren oinarriak mantendu egin zituela: monarkiarekiko begirunea, izaera liberala eta kontserbadurismoa (Toribio, 2019, 2.or.).

#### **4. ABC MADRIL**

Azken zati honetan Gerra Hotzaren eta espainiar prentsaren, *ABC* Madril egunkaria erabiliz, arteko lotura izango da ardatza. Gertakari bakoitzean prentsak indartzen duen

jarrera eta gertakarietako duen ikuspuntua behatuz, ABCk egiten duen narrazioa aztertuko da.

#### 4.1. Madrilgo Akordioa: “Bando”-aren ezarkuntza

Oro har, Espainiar Prentsak AEBrekiko eduki zuen jarrera eraldatzen joan zen 1948tik 1953ra, Madrilgo Ituna sinatu arte, alegia. Prentsaren ikuspuntua estuki lotua zegoen nazioarteko egoera diplomatikoarekin eta Espainiak berak testuinguru hartan zuen paperarekin. ABCren joera hiru aldi nagusitan bana daiteke, lehena, 1946tik 1949ra luzatzen dena, desadostasunaren garaia; bigarrena, 1949-1950, aurkaritza malgutzen doanekoa eta, azkenik, 1951tik aurrera begirune handiagoa orokortuko da.

1946ean, “Espainiar Auzia” bozkatu zen lehen urtean, Espainiar Prentsak Sobietar Batasuna izandatu zuen errudun: “*La democracia rusa ha tenido un éxito que no debemos ocultar los españoles*” (Anonimoa, 1946-12-14, 7.or.). Mendebaldarrekiko jarrera behatuz, esan liteke 1948 eta 1949 artean Espainiak AEBrekiko zuen iritzia nahiko lausoa zela, batez ere Marshall Planetik at geratzearen ondorioz eta Nazio Batuetako Erakundeak Espainiaren blokeoa bozkatzaren ondorioz, komunikabideek Espainiar duintasuna nabarmentzen zuten, nolabaiteko harrotasuna eta indiferentzia erakutsiz. Dena dela, urte hauetako prentsak berebiziko garrantzia eman zion atzerriko politikari edota Espainia bera alboratua gelditzearen kontuari. Zentzu honetan nahiko kontraesankorra zela esan liteke, Espainiak Nazio Batuen erakundeetan sartu nahi ez: “*no lo solicitó, por cierto*” (Anonimoa, 1948-04-02, 9.or.), baina mendebaldarren iritziarekiko interes handia: “*Gurney recomienda en Washington que España sea incorporada a la alianza militar Europea contra el comunismo*” (Massip, 1948-10-07, 7.or.) erakusten zuelarik. Prentsa samindurik zegoen Estatu Batuen eta NBE-ren erabakiekin, eta hau kritika lazgarrien bitartez adierazten zuen:

*“Las Naciones Unidas no saben lo que quieren, ayer condenaban a un régimen y todas las naciones estaban en contra del mismo, hoy lo toleran y les falta claridad y decisión para levantar oficialmente aquellas sensaciones”* (Massip, 1949-05-18, 15.or.).

Atzerriko politikariei dagokionez, 1948 eta 1949 bitartean ematen den testuinguruan Espainiak nazioarteko diplomaziarekiko zuen interesa ere erakutsi egiten da. Haien iritziak, Espainiaren isolamenduaren errudun nagusiak sobietarrak ziren eta, honen



aurrean, mendebaldarren ekintza eza kritikatzeko zuten: *“Las democracias no se anticipan, no toman la iniciativa y se dan por satisfechas si Rusia las deja vivir”* (A.R.,1949-02-16, 7.or.). Kontuak kontu, mundu mailako diplomatika aldatzen ari zen ustea zuen prentsak, eta Espainiak atzerriarekin zituen akordio orori ongietorria egiten zion, hala, Estatu Batuen senatarien etorrera (1949-08-28), Washingtonek Espainiari kreditua ematearen auzia (1949-09-04) eta Espainiaren eta Estatu Batuen arteko truke kulturala (1949-10-02) aipatu ziren.

Egoera 1950tik aurrera eraldatzen hasi zen eta, Gerra Hotzeko harremanak okertzen zihoazen heinean, Estatu Batuek Espainiarekiko zuten interesa geroz eta nabariagoa zen. Hala ere, Espainiar prentsak haren duintasuna mantendu zuen, Estatu Batuek 1946etik 1950era eramandako politikei kritika egin eta 1950ean Espainiarekin harremanak berrezartzea soilik iparramerikarren interesekoa balitz bezala jokatu: *“se vio que era éste (Estados Unidos) y no España quien tenía que examinar su propia actuación”* (Massip, 1950-01-13, 7.or.). Kritikak egon baziren ere, Estatu Batuekiko errespetua geroz eta nabarmenagoa zela esan liteke, eta Espainiaren 1946ko blokeoa jokoz kanpo uztean poztasuna erakutsi zuen: *“Desde 1946 hasta hoy España es la misma, no ha cambiado, lo que ha cambiado es la ONU y los Estados Unidos”* (Massip, 1950-11-02, 15.or.).

1951tik 1953ra diplomazia eta kanpo politika guztiz aldatu ziren, Estatu Batuen eta Espainiaren arteko truke militar, diplomatiko, ekonomiko eta kulturalak nabariagoak zirelarik. 1951 hasieratik markatzen da bi lurraldeen arteko harremanak berrezarri egin zirela, eta honez geroztik, Estatu Batuen politikekiko begirune handiagoa erakutsi zuen prentsak: *“La sinceridad y la responsabilidad con la que aquella República Federal ha aceptado la misión histórica de contener a la Rusia marxista e imperialista, encontrará en nuestro país un eco favorable”* (Anonimoa, 1951-08-28, 7.or.). 1953an 1951ko joeraren antzekoa hauteman daiteke, prentsaren hitzetan, jada bi lurraldeak elkar ulertu ziren eta helburu berdina zuten, hots, Europan komunismoa geldiaraztea. Madrilgo Akordioaren sinadurekin batera ABCk Estatu Batuekiko zuen ikuspuntua finkatu egin zen eta hala iraungo zuen, gora behera batzuekin, Gerra Hotza amaitu arte. *“Y ahora que estamos donde estábamos, nos place en extremo saber que los Estados Unidos están con nosotros”* (Massip, 1953-09-30, 23.or.)

#### 4.2. Berlingo Krisia: sinbolikotasuna eta diplomazia

Berlingo krisia 1958ko Khrustxoven *ultimatum*-aren bitartez indartu zen, beraz, 1958ko azken hilabeteetako prentsaren analisiarekin hasiko da gogoeta. Khrustxoven gutunaren berri eman zenetik eta, batez ere, aliatuek gutun honenganako aurkaritza erakustetik, prentsan krisi baten aurrean zeuden ideia indartu egin zen: *“tal como se plantea, la de Berlín es una crisis delicada”* (Massip, 1958-11-21, 43.or.). Azken finean, ABCko kazetariak argi zuten sobietar eskariak ez zirela mendebaldarrengatik onartuak izango, eta idazleek haiek ere onartezinak zirela baieztatu zuten: *“las potencias occidentales han hecho exactamente lo que tenían que hacer: decir “no””* (Massip, 1958-12-16, 53.or.). Prentsaren aburuz, II. Mundu Gerraz geroztik Berlin garaipenaren eta, denborarekin, mundu mailako bi ideologia kontrajarrien sinbolo bilakatu zen, eta beraz aliatuek ezin zituzten sobietarrek plazaratutako eskariak bete: *“Berlín es un símbolo al que no podemos renunciar, los riesgos de una actitud inicial de firmeza serán menores que los de la vacilación y el pasterleo”* (Massip, 1958-11-26, 33.or.). Lehen momentutik, sobietarren aurkako kritikak ugariak izan ziren, Moskuren nahimen inperialistak eta eragin-guneak handitzeko erabiltzen zuten totalitarismoa eta mehatxuak kritikatu: *“la crisis de Berlín ha sido inventada por los rusos para ampliar la bolchevización de Alemania, apoderándose de su capital”* (Massip, 1959-03-18, 47.or.). Honen aurrean, eta egoera arriskutsuari so eginaz, mendebaldarren laudatzea nabaria izan zen, haien eginbeharrei erantzuten baitzieten Moskuko eskariei ezezkoa ematean, eta hartu zuten bide diplomatikoarekiko baikor azaltzen ziren: *“La postura de Eisenhower puede resumirse en dos palabras: firmeza y negociación”* (Ibid, 47.or.).

Bi potentzien arteko norgehiagoka honetan, prentsak Ginebrako gailurrari berebiziko garrantzia eman zion, baina ez zuen gailur honen inguruko itxaropen handirik erakutsi. Bilerak hasi ziren lehen momentutik, bi blokeen arteko ideien aurkaritza nabaria zen, eta hala islatu zuen ere Suizara hurreratu zen berriemaileak: *“Los rusos querían una mesa redonda, redonda, redondísima. Los occidentales querían una mesa cuadrada, cuadrada, cuadradísima”* (Polo, 1959-05-12, 31.or.). Gailurrak iraun zuen 3 hilabeteetan, ABCk ia egunero argitaratu zituen Alemaniaren auziaren inguruko artikuluak; bileretan ematen ziren eztabaidei berebiziko garrantzia emanaz. Azkenean, denbora aurrera zihoan heinean, gailur honek inongo baliorik eduki ez zuen ustea baieztatu zen. Porrot honen errudun nagusia sobietarrek ziren ABCren aburuz eta hala errepikatu zuten behin baina gehiagotan, izan ere, Sobietarren berezko nahia

Eisenhower eta Khrustxoven arteko bilera zuzen bat zen eta, honenbestez, Ginebrako gailurrak ez zuen inongo fruiturik lortu: *“hasta este momento la “nueva diplomacia” ha proporcionado una victoria moral a la Unión Soviética: la de las conversaciones bilaterales entre Eisenhower y Kruschef”* (Massip, 1959-08-06, 23.or.).

Gailur honen porrotaren ostean, Eisenhowerren eta Khrustxoven arteko bilera pribatuari eman zitzaion lehentasuna. 1959eko irailean zuzendari sobietarrak Estatu Batuetara bidaiatu zuen eta, orduko gizartearen espektatibak altuak baziren ere, ABCko kazetariak nahiko zalantzati azaldu zuten haien burua. Azken finean, sobietarrekiko mesfidantza handia zen eta baita Khrushtxov berarekiko zegoena. Bidaia hau amaitzean, beste behin frogatu ziren diplomaziaren mugak eta, berriro ere, sobietarren errua zen egoera honetara iritsi izana: *“Kruschef no vino aquí a aprender, sino a enseñar”* (Massip, 1959-09-22, 33.or.). Hala ere, konferentzia honek itxaropen izpi txiki bat ireki zion prentsari: “handi”-en bilera.

Bilera hori 1960eko maiatzerako zegoen hitzartua, baina urte hartako maiatzaren 5ean, prentsak lurralde sobietarrean U-2aren eraistearen berri eman zion gizarteari. Gertakari honek sekulako eragina izan zuen krisiaren baitan eta honen inguruko testuak ugariak izan ziren. Prentsaren aburuz, U-2aren inguruan Khrustxovek egin zuen eskandalua gehiegizkoa zen, azken finean, sobietarrak ere espiontza hegazkinez baliatzen ziren etsaiaren berri izateko. Beraz, gertakariaren inguruko jarrera hala aurkeztu zen: *“Una increíble hipocresía de la U.R.S.S.”* (Massip, 1960-05-13, 47.or.). Arrazoari honen erruz sobietarrek arrotasuna erakutsi zuten Estatu Batuekiko eta, beste behin, bilerak bertan behera gelditu ziren, errua, berriro ere, sobietarrena zen: *“Kruschef es un hombre en busca de una crisis y había lanzado un ultimátum de humillación”* (Massip, 1960-05-18, 52.or.).

Beste behin itzuliko zen Berlinen krisiaren inguruko norgehiagoka, hala islatuko zuen prentsak 1961eko udan. Harresien eraikitzearen inguruan Moskuko gobernariak errua zutela argi zegoen, baina oraingoan aldaketa bat nabari daiteke: mendebaldarrek behar bezala ez erreakzionatzeari kritikak egin zitzaizkon. Gatazka honetako lehen hilabetetan mendebaldarrentzako lehentasuna diplomazia izan zen, eta espainiar prentsak jarrera honekiko zalantzak eta, nohizbehinka, desadostasuna erakusten zituen: *“Lo peor de todo es que la crisis fue anunciada con tiempo suficiente. Pero era más progresista dar*

*por buena la coexistencia pacífica brindada por Moscú*” (Barra, 1961-08-30, 19.or.). Azkenean, 1961eko urriko gatazka izan zen garrantzitsuena, bertan indartu baitzuen prentsak mendebaldarrek, behingoz, erreakzionatu zuten ideia: *“recibieron una clara demostración de que Estados Unidos no se muestran dispuestos a consentir ninguna maniobra para recortar más aun los derechos aliados en Berlín”* (Barra, 1961-10-26, 31.or.). Azkenean, harresiaren inguruko auzia bertan behera gelditu zen, baina ez harresiari berari kritikarik egin gabe: *“muralla de cemento -y de odio- de los dos Berlín”* (Massip, 1961-10-28, 47.or.). Gatazka honen ostean, berriro diplomaziarako bideak ireki ziren.

#### 4.3. Kubako Misilen Krisia: Kennedy-ren garaipena

Kubako misilen auzia 1962ko urriaren 23an azaltzen da lehen aldiz Espainiar prentsan. Esan beharra dago, ordurako ABCk ez zuela begi honez ikusten Fidel Castrok gobernatzen zuen irla sozialista berria eta honen inguruko kritikak gogorak izan zirela iraultza gertatu ostean. Urriaren 23an zentratuz, krisiaren berri Kennedy beraren prentsurrekoarekin eman zen, bertan Kubako Blokeoa dekretatzen zela aipatuz. Jada lehen momentutik egoera arriskutsua zela errepikatu zuen prentsak behin eta berriro: *“Es obvio que Estados Unidos va a enfrentarse con una grave crisis internacional y se dispone a tomar disposiciones inmediatas de tipo militar”* (Massip, 1962-10-23, 49.or.). Bestetik, prentsaren lehen egunetako joera Estatu Batuen iraganeko politika “bakezaleei” kritika egitea izan zen, honen bitartez, jomuga nagusia Etxe Zuria egoeraren errudun bilakatzea izan zen: Kennedy *“debía haber actuado antes, al entrar en la Casa Blanca (...) ya es tarde para evitar el drama”* (Massip, 1962-10-24, 47.or.).

Denbora aurrera zihoan heinean, Kubako misilen egoera larria zen ustea egonkortu egin zen prentsan, urriaren 23tik azaroaren 3ra egunero ematen zelarik egoeraren berri. Etapa honen baitan bi gai errepikatzen ziren etengabe, alde batetik, Kennedyren goraipamena eta, bestetik, sobietarren erreakzioa. Kennedy-ren inguruan, haren erabakiak eta, bide batez, Etxe Zuriak hartutakoak justifikatu, onartu eta, kasu batzuetan, goraipatu ere egiten zituen. Kazetarien aburuz, Estatu Batuetako presidentearen jarrera zorrotza eta eraginkorra izan behar baitzen: *“El bloqueo ordenado por el presidente de los Estados Unidos está, pues, justificado hasta la saciedad”* (Massip, 1962-10-24, 49.or.). Kennedyrekiko begirunea ere argia izan zen prentsan, eta hark hartutako jarrera ikuspuntu baikor batetik arrazoitzen zen: *“El presidente Kennedy está jugando la*

*partida cubana con talento, diplomacia y magnanimidad*” (Massip, 1962-11-03, 31.or.). Sobietarren erreakzioari edo jokabideari dagokionez, Khrustxoven erabakiekiko jarrera anbiguoagoa dela esan liteke. Alde batetik, Khrustxovek Washingtonen Kubako Blokeoarekiko eduki zuen erreakzioa normaltzat jotzen zuen, baina, era berean, mesfidantza handia isladatzen zuen idatzien bitartez: *“El último mensaje de Kruschef a Kennedy, si no es otra hipocresía del ministro ruso, contiene la solución al problema de Cuba”* (Anonimoa, 1962-10-30, 47.or.). Bestetik, sobietarren gobernuarekiko gorrotoa eta kritikak, zeinak Gerra Hotza hastetik ikusten baitiren isladatuak, krisi honetan indartu egin ziren Estatu Batuen politikak justifikatze-aldera:

*“El propósito de paz que animaba a los Estados Unidos al final de la guerra no fue correspondido por Rusia, y que ésta, a través de la acción de los partidos comunistas, a través de golpes de estado, revoluciones, elecciones falseadas, asesinatos políticos o simple y brutal ocupación militar ha acabado con la libertad”* (Anonimoa, 1962-10-30, 48.or.).

Bi potentzien arteko elkartukeak eta akordioak, kasu batzuetan ezkutukoak, gauzatzen hasi zirenean, oro har garaiko gizarteak Kubako misilen sorrera justifikatu egin zuen. Hau da, Kubako misilak Turkiako misilekin alderatu egiten zituzten eta, hala, misilen auzia justifikatu. Honen aurrean esanguratsuen, eta esplizituena, *“El Peso de la púrpura”* artikulua litzateke, artikulua honetan argumentu anti-iparamerikarrei erantzuna ematen zaie, eta Espainiako prentsaren Washingtonekiko zaletasuna esplizituki idatzi zen: *“nosotros nos encontramos al lado de los Estados Unidos en un cien por cien”* (Ibid, 48.or.).

Krisia baretzen hasi zenean prentsaren jarrera ere lasaitzen hasi zen. Kennedy-Khrustxov akordioak eta Estatu Batuetara bidalitako negoziogile sobietarren presentzia sarritan aipatu ziren. Honela, 1962ko azaroaren 3tik aurrera bake edo adostasun batera iritxi ziren ideia indartu zen: *“Este dramático intercambio ruso-norteamericano puede abrir horizontes inéditos de coexistencia y paz”* (Massip, 1962-11-03, 31.or.). Akordio hauen baitan eta, batez ere, azaroaren 8tik abenduaren 14era luzatzen diren artikulua ezberdinetan, Estatu Batuen joera irmoa laudatu egin zen, prentsaren aburuz, Etxe Zurian hartu ziren erabakiek sobietarrak kikildu egin zituzten, beraz, Kennedy izan zen, prentsaren begietan, krisi honen garaile nagusia eta berari zor zitzaien egoera lazarri horren amaiera baketsua. Honen adibide da Massip-ek

(1962-11-10) idatzitakoa: *“Esto le deberá el mundo al presidente de Estados Unidos John F.Kennedy: haber osado, haber enfrentado a la URSS con una guerra nuclear si daba un paso más en el continente americano”* (49.or.). Khrustxovekiko zegoen ikuspuntuari so eginaz, apaltze bat hauteman daiteke, artikuluek zioten: *“Moscú parece haberle visto de verdad las orejas al lobo”* (Massip, 1962-11-09, 47.or). Eta honen aurrean haien jarrera aldatu dutela: *“desde Cuba, Kruschef es otro hombre”* (Massip. 1962-12-13, 47.or.). Laburbilduz, prentsaren iritzi Estatu Batuak atera ziren Kubaren gatazkaren garaile nagusi, eta honek Gerra Hotzeko testuingurua aldatuko zuen.

